

Oarsoaldeko izurde eta baleak

Enara Marcos

EIBE (Euskal Izurde eta Balezaleen Elkarte)

Pasaia eta Erreneriako lurretan babestutako ekosistemak, eta itsasoa?

Erreneria eta Oarsoaldeko eremu lurtarretan ezagunak dira hainbat naturgune babestu: Aiako Harria, Jaizkibel, Artikutza, Ulia, San Marko eta Txoritokieta, adibidez. Gehienak Natura 2000 kontserbazio-sare europarrean babestuta. Pasaia, Hondarribia eta Donostiako itsasaldean, aldiz, ez dago babes legalik jaso duen eremu itsastarririk.

Errenerian, Lezo edo Pasaian itsas nabigazioak, arrantzak edo ontzigintzak tradizio handia izan dute mendeetan zehar, itsasoarekin lotura estua ekarri zuena. Gaur egun, aldiz, badirudi lotura hori hausten joan dela, horren adibide garbia dugun itsas ezagupenaren eskasia izanik.

Baleak eta izurdeak aruntak dira Oarsoaldean

Nahiz eta gure eskualdeko jende askorengan harridura sortu, zortzi urtez Kantauri itsasoa arakatzen ibili ondoren, EIBE Elkarteko kideok 17 zetazeo edo itsas ugaztun espezie ikustatu ditugu. Euskal Herriko kostaldeak altxor ezezagunak gordetzen ditu, hainbat izurde, balea, marrazo, dortoka eta hegazti dira altxor honen adibide.

Ikerketen arabera, gipuzkoar kostaldean 5 zetazeo mota bizi dira modu arrunt batean. Izurde handia, izurde marraduna, izurde arrunta, potzuak edo izurde pilotuak eta Cuvier moko baleak dira gipuzkoar itsasoan urte osoan zehar aurkitzen ditugun espezieak. Espezie horiek



Izurde arrunta Pasaian.



Izurde pilotuak.



Katxalotea Senkozuluan (Puntas).

Zetazeoen populazioak ohikoak dira Oarsoaldean.



Izurde handiak
jauzika Turrulla eta
Azabaratza artean.

hainbat eremu itsastar ustiatzen dituzte, horrela, potzuak ezpondan elikatzen dira, eta Cuvier moko-baleak Capbreton-go kanoiko ur sakonetan bizi dira. Bestalde, izurde marradunak 200 m sakon baino gehiago duten ur ozeanikoetan aurkitzen ditugu, eta izurde handia eta izurde arrunta, berriz, itsas bazterraren pare-paretik itsaso zabaleraino banatzen dira.

Kaxalotea, xibarta balea, mazopa,... Pasaian

Espezie horietaz gain hainbat balea mota, kaxaloteak, mazopak, Cuvier balea espezie ezberdinak eta beste latitudeetako zetazeoak ere ikustatu ditugu Oarsoaldeko bazter honetan. Espezie bakoitza bere jakia dagoen lekuan topatzen dugu. Lege honi jarraituz, balea hegatsuria eta xibarta baleak Ulia edo Jaizkibelen (Turrulla edo Ixkiro puntetan) parean ikustatu dira, izurde eta itsas txoriekin batera xardina txikia jaten; iparralde alderago aurkitzen diren ur sakonetan izurde handiak eta potzuak berdela, txibia eta legatza harra-



Xibarta balea
Oarsoaldeko itsas
aldean ikusi daiteke.

patzen dituztelarik. Pasaiaiko portuaren sarreran, Senokozuluan, kaxalotea ere ikusi izan da.

Bestalde, itsaso zabalean urtero ikusten dira izurde arrunta eta izurde marradun talde handiak (800-1.000 ale) eta 1.000 metro sakon diren uretan Curiel balea iheskor eta ezezagunek dute bizileku. Kaxaloteak, urpekari ezagun eta trebeak, boladaka azaltzen dira gure kostaldetik milia gutxitara.

Pasaia edo Hondarribiko uretan bizi diren balea eta izurdeek itsasoaren egoera naturalari buruzko informazio ugari ematen digute. Animalia hauek, marrazoekin batera, harra-pari nagusiak dira, eta, horrenbestez, horien elikagaia diren arrain, krustazeo, olagarro eta txapiroaiak eta bestelako animalia ugariak diren eremuetan bizi dira. Gure kostaldean, izurdeek eta baleek jakia aurkitzen dute oraindik ere, baina taldeen egoerak adierazten duen modura, geroz eta zailago zaie behar den bezala elikatzea.

Kantauri itsasoaren egoera gainbehera

Jakina den moduan, arrain espezie gehien populazioak bortizki murriztu dira azken hamarkadetan, bestalde, gure ozeano eta itsasoak hainbat modutan daude kutsatuak, akustikoki, hidrokarburoz, plastikoz eta hainbat kutsatzailez. Arrantza tresna eta sareetan ere izurde ugari hiltzen dira, ontzien aurkako talketan hildakoak ahaztu gabe. Zetazeoen arazoak eta itsasoaren arazoak berdinak dira.

Izurdeen populazioak murrizten joan dira, kostaldetik gertu bizi diren espezietan oso nabarmena delarik. Gure kostaldean mazoparen populazioa da honen adibide, geroz eta kume gutxiago dauzkate, taldeak 3-6 alek osatzen dituzte, tamalez, talde txikiak espezie honen iraupena ziurtatzeko.

Espezieen egoera hauskorra dela eta, neurriak berehala ezartzea derrigorrezkoa da, animalia horien babes ezinbestekoa da bioaniztasun itsastarra mantentzeko. Ozeano guztietako animalia itsastar horien egoera larria dela eta, hainbat lege eta araudi babesten dituzte. Europako Batasunaren legediaren arabera zetazeo espezie guztiak babestuta daude. Legeari jarraituz, eremu babestuak behar dira animalia horien ingurua babesteko, eta aldi berean haien etorkizuna ziurtatzeko.

Gipuzkoar kostaldeko altxor berezi hau babestea guztion lana da, gobernuen erabaketeo inplikaziotik hasita, bakoitzaren eguneroko ekintzetan ingurumena zaintzeraino.

Natura 2000 Sarea: Donostia-Miarritze itsas korridore ekologikoa

Aurtengo apirilean Oceana-COBE Proposamena aurkeztu zen Donostiako Aquariumean. Horren bidez, Oceana itsas kontserbaziorako nazioarteko erakundeak eta Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak (COBE) eskatu zuten babestutako itsas eremu bat eratzea, Ulia eta Jaizkibelgo itsas hondo eta eremu pelagikoetan, Miarritzeraino iritsiko dena.

27.300 hektarea inguru izango ditu, eta bertan ehun komunitate eta hainbat habitat edukiko lituzke. Gainera, mila espezie inguru izateaz gain, Europar Atlantikoko korridore ekologiko anitzetako eta garrantzitsuetariko bat osatuko litzateke.

Itsas korridore ekologiko honetan hainbat eremu sartuko dira: Jaizkibel eta Ulia mendietako labarren arteko itsasoa, Bidasoa ibaiaren estuarioa, Txingudi eta Hondarribia badia, Hendaia, Abadia eta Sokoa aurreko harkaitzak eta Donibane Lohitzune eta Miarritze bitartean dauden labarrak.



Jaizkibelgo eremu pelagikoak Euskal Herriko biodibertsitate handienetakoa dira.



Oceanak eta Biologoek Elkargoak Oarsoaldeko itsasoa Natura 2000 Sarean sartzea proposatu dute.



Kaxalotearen isatsa